

EUSKALTZAINDIA 'REN

IRUGAĀREN URTEKO BATZARAĀK

**Durango'n, Jesus'en Lagundikoek dauken Ikas-
tetxeko areto nausian, 1921'ko IraĀa'ren 7'an.**

Batzandu dira Azkue, Urkixo, Lakonbe, Olabide, Altube, Lhande ta Eguskitza euskaltzaĀnak eta Ormaetxea, Oleaga, Lekuona ta Belaustegigoitia urgazleak.

Lenbizi. Euskaltzain buruak gure erien berĀ eman digu. Intza Aba sukaĀ ustelez eri egon da ta dago: Irigaray sendatzale azkaĀak dionez «polikixiago dugu, baĀo oraino gaitzak ez du utzi» Eleizalde'ri Hamburgo'n irugaĀren ebaketa egin diote: obeki dijoa ta laisterĀ guziz sendatuko dala uste degu. Maidagan ere sukaĀ ustelez eri egon da; baĀo gaitzak utzi du ta aldi gutxi baĀu bere zeregiĀetan ari al izango da.

BigaĀren. Idazki batzuek irakuĀi dizkigu. Kanpion Jaunak euskalegun oyetara etoĀtzeko betarik ez duala adierazten du. Gazteiz'ko gure Gotzain Jaunak ere bere erantzute adeitsuan auxe dio: Zuen aĀtera pozik joango nintzake; baĀo egun oriek EĀioja-aldean Sendatza emateko autatuak dauzkat eta Durango'rako astirik ez det.

Zurikalday Araba'ko Aldun buru Jaunak ere, Gazteiz'ko jayak dirala-ta, gure aĀtera etoĀtzeko betarik, ez duala dio. Intzagaray, gure lankideak, AstarĀoa zanaren dedu ta opaz olerĀkirik ez duala idatzi ta bere

eleizako zeregiñak euskalegunetara etoritzea ere eragotzi egiten diela agertzen digu.

Irugeñen. Durango'n antzerki-jayak egiteko Donostia'ko antzerkilariei Uztala'ren 8^{an} ots-egin ziela; baño Dagonila'ren 24^{an} ezetza eman zielako, beñgarañakin beranduxe itunketan ibili beñ izan duala jakin-erazi digu Euskaltzain buruak.

Laugañen. Apraiz Jaunak aurtan egin duan lanaren beñ emateko, atsegiñez entzun dan txosten bat irakurri du. Datoñen urteko ikasketak non eta norekin egingo otedituan erabaki baño len, ikasle onek Schuchardt Jaunari bere iritzia galdetu dezayola zuzenetsi da. Iraizoz Aba ere nora ta norengana bialiko otedegun aipatu degu; baño erabakirik ez da aritu.

Boskañen. Sariketara aurkeztu diran lanak Olabide, Lhande, Ormaetxea ta Lekuona'k irakurri eta iker bitzate ta beren aburua Euskaltzaindia'ri ager bezaye.

Eta beste gabe, «Gloria» esanaz, batzaraldi au bukatu da.

Durango 'n, Jesus 'en Lagundikoen Ikastetxeretoan, 1921 'ko Iraia 'ren 8 'an.

Atzoko batzar-agerian aipatzen diran euskaltzain eta urgazleak bildu ziran.

Erabaki oyek aritu dira:

1. Durango 'ko Udala'ri euskalegun oyetarako eman dizkigun erextasunakatik, eskerak egin bitzazkio. Enday'an bizi dan Estomba Jauna, España'ren konsulari ere, zuberotar dantzari azkarai muga igarotzea uririk laketu dielako, anitz eskar. Orobat, bere